

“TORIBIO ECHEVARRIA 2011 SARIAK

Ekintzaitza Berritzaileari Euskadi Sariak

“OINARRIAK”

OINARRIAK: 22. EDIZIOA "TORIBIO ECHEVARRIA" SARIAK

“ENPRESA ASMOAK” SARIA

“ENPRESA” SARIA

EIBARKO UDALAK, bere Ekonomia eta Industria Batzordearen zuzendaritzapean, eta BIC GIPUZKOA BERRILANek, Toribio Echevarria Sarien beste edizio bat bultzatu dute Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Ekintzailerak Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako, Landa Garapenerako eta Turismoko departamentuak babesturik eta SPRI, APD; DIARIO VASCO, KUTXA, ADEGI, CEBEK eta SEA-ren laguntzaz.

Aurtengoari begira hainbat erakunderen babesa eta laguntza izango dugu: EUSKO JAURLARITZAKO Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN Berrikuntzarako, Landa Garapenerako eta Turismoko departamentua, SPRI, DEBEGESA, BIC GIPUZKOA BERRILAN, APD, KUTXA, GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBERA, CONFEBASK, DIARIO VASCO, ADEGI, CEBEK eta SEA.

Sari honek bultzatu eta aitortu nahi dituen baloreak: ekimena, berrikuntza, ekintzarako gaitasuna, sormenerako ahalmena eta enpresak garatzeko kemena dira berrikuntza teknologikoari arreta berezia ipiniz.

Euskal Herriko industria-ehunaren berrikuntza-kultura eta modernizazioa garatzeko, sormenaren eta berrikuntza teknologikoaren bidetik doazen ekintza guztiei baita enpresa-errealitate izan litezkeen “asmo” guztiei ere, bideak zabaltzen, laguntzen eta horien aldeko apustu egiten jarraitzen dute EIBARKO UDALAK eta BIC GIPUZKOA BERRILANek sari honek oinarrian duen filosofiari jarraituz.

1.- HELBURUAK

- 1.- Enpresa eta asmo berritzaileak sustatu.
- 2.- Ekintzailearen irudia bultzatu eta hedatu.
- 3.- Lana sortzen lagundu.
- 4.- Gure herrian, enpresa edo lantegi berriak ahalbideratu.
- 5.- Berrikuntza teknologikoa enpresan sustatu.

2.- SARIETARA AURKEZ DAITEZKEENAK

KATEGORIA: “ENPRESA ASMOAK”

- Euskal Herrian jaio edo bertan bizi diren pertsonak, banakoak zein taldean, enpresa-ekimen berriak aurkezten dituztenak, batez ere zientzia-teknologia arloan.

Kategoria honetan enpresa gisa martxan dauden baina beren presentzia merkatuan sendotzeko ontze-prozesu nabaria behar duten proiektuak sartuko dira ere.

KATEGORIA: “ENPRESA ”

- Ezagueraren edo/eta zientzia-teknologia arloetako enpresa intentsiboak, Sariaren babesa beren jarduera sendotu/ontzeko behar dutenak edo berrikuntzan oinarrituriko produktu edo prozesu berri bat sortzeko prozesuan daudenak

Oharra: Edozelan ere, sariaren antolatzaileak, hautagaiak kategoria batean edo bestean sartzeko eskubidea izango du nahiz eta hautagaiak bestera aurkeztu. Hala ere, aurkeztu diren hautagai guztiei hori behar bezala adieraziko zaie erabaki hori hartzeko egon diren arrazoiak azalduta.

3.- PARTEHARTZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

1. Enpresek, egoitza eta instalazioak Euskal Herrian izan behar dituzte.
2. Pertsona fisikoei dagokienez, Euskal Herrian jaio edo bertan bizi direnak behar dute izan.

Baldintza hau frogatzeko, balioko dute:

- a) Alta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, enpresen kasuan.
- b) Errola-ziurtagiria asmo edo proiektuen kasuan.

4.- SARIAK

KATEGORIA: “ENPRESA ASMOAK”

Honako hau dagokio:

- Eibarko Udalaren Saria: 10.500 €, eskudirutan.
- Bic Gipuzkoa Berrilan bitartez Ekintzaile/Txekintek Programan sartzea enpresaren bideragarritasun- eta abiarazte-txostena egiteko, 60.000 €-raino.
- Doaneko harpidetza APDn, urtebetez; horrek dakar: APDeK Eskualde guztietan antolatzen dituen jardunaldietara doaneko sarrera (170 inguru) eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. (www.apd.es).
- ADEGI, CEBEK eta SEA Saria, herrialde-elkarte bakoitzaren Zerbitzuen araberako eta saridunaren interesen araberako enpresa-errekonomizimendua.
- Enpresaren eta Berrikuntzaren hedatzea, laguntzaileen eta babesleen bitartez.
- Sariari dagokion garaikurra.

Oharra: epaimahaikideek sariaren kontzeptu ezberdinak hautesle ezberdinei emateko eskubidea gordetzen dute.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren “TEKNOLOGIA ALORREKO” Enpresa asmoei Saria, 24.000 € artekoa.

Teknologiaren alorreko sari hau gauzatzeko, saritutako proposamenak teknologia-garapen bikaina izan beharko du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari dagozkion Ikerketa-zentroek eguneroko jardueran menperatzen eta betetzen dituzten diziplinen inguruan. Sariaren ebaluazio-epaimahaiak aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu, horientzat teknologia-garapenak adierazten duen balio estrategikoa, nola horri lotutako zenbatekoa eta arriskuak ezartze aldera.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Toribio Echevarria Sariaren ebaluazio-epaimahaiak aukeratutako pertsonari NETS, GAITEK edo INNOTEK programen baitan laguntza emateko konpromisoa bere gain hartzen du.

“Teknologia alorreko” Sariaren onuraduna hautatu orduko, Sariaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzako Teknologia Sailari jakinaraziko diote, eta onuradun horiek Sailaren aurrean aurkeztu beharreko laguntza-eskaria zein programari egokitu behar zaion erabakiko dute bi aldeek.

Onuradunak laguntza-eskaria aurkeztu eta aukeratutako programak eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu Saria eskuratu ahal izateko.

******Teknologiaren alorreko sari honen inguruko interesa izanez gero, gauzatu asmo**

дутен гарарен- едо икеркети-идеи геһиенез 10 орриалдеко тхостенан јасо беһарко дуте. Һалабер, гарарен һорретаракo јасотакo лагунтен едо/ета ескаера-һасан даудела диен зинпеко аиторпенa ауркезту беһарко дуте.

KATEGORIA “ENPRESA”

Honako hau dagokio:

- Eibarko Udalaren Saria: 10.500 €, eskudirutan.
- Bic Gipuzkoa Berrilan bitartez Barnekintzaile/Txekintek Programan sartzea enpresaren bideragarritasun- eta abiarazte-txostena egiteko, 60.000 €-raino.
- Doaneko harpidetza APDn, urtebetez; horrek dakar: APDeK Eskualde guztietan antolatzen dituen Jardunaldietara doaneko sarrera (170 inguru) eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. (www.apd.es).
- ADEGI, CEBEK eta SEA Saria, herrialde-elkarte bakoitzaren zerbitzuen araberrako eta saridunaren interesen araberrako enpresa-errekonozimendua.
- Enpresaren eta Berrikuntzaren hedatzea, laguntzaileen eta babesleen bitartez.
- Sariari dagokion garaikurra.

Oharra: epaimahaikideek sariaren kontzeptu ezberdinak hautesle ezberdinei emateko eskubidea gordetzen дуте.

NAZIOARTEKOTZEARI BABESA Saria.

Sari gisa, SPRI taldeak proiektu bat egingo du, bere nazioarteko sailak ordezkarritza duen merkatuetako batean sartzeko.

Proiektu horretan, merkatu-azterketa bat egingo da едо/ета merkatu horretan izan даitezkeen bazkide komertzial, industrial едо технологikoak bilatuko dira.

Saria ematen den urtean zehar martxan јарри беһар da proiektua. Proiektua burutzeko epea SPRIrekin batera zehaztuko da, proiektua abian јарри аurretik.

******Sari honetan interesaturik egonez gero, honekin batera doan Galdetegia bete beharko duzu, eskatutako beste dokumentuekin batera.**

**Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren
“TEKNOLOGIA ALORREKO” Enpresa Berriei Saria, 24.000 € artekoa.**

Teknologiaren alorreko sari hau gauzatzeko, saritutako proposamenak teknologia-garapen bikaina izan beharko du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari dagozkion Ikerketa-zentroek eguneroko jardueran menperatzen eta betetzen dituzten diziplinen inguruan. Sariaren ebaluazio-epaimahaiak aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu, horientzat teknologia-garapenak adierazten duen balio estrategikoa, nola horri lotutako zenbatekoa eta arriskuak ezartze aldera.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Toribio Echevarria Sariaren ebaluazio-epaimahaiak aukeratutako pertsonari NETS, GAITEK edo INNOTEK programen baitan laguntza emateko konpromisoa bere gain hartzen du.

“Teknologia alorreko” Sariaren onuraduna hautatu orduko, Sariaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzako Teknologia Sailari jakinaraziko diote, eta onuradun horiek Sailaren aurrean aurkeztu beharreko laguntza-eskaria zein programari egokitu behar zaion erabakiko dute bi aldeek.

Onuradunak laguntza-eskaria aurkeztu eta aukeratutako programak eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu Saria eskuratu ahal izateko.

******Teknologiaren alorreko sari honen inguruko interesa izanez gero, gauzatu asmo duten garapen- edo ikerketa-ideia gehienez 10 orrialdeko txostenean jaso beharko dute. Halaber, garapen horretarako jasotako laguntzen edo/eta eskaera-fasean daudela dioen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute.**

5.- HAUTAGAIEN BALORAZIOA

Aurkeztutako proiektuak, Batzorde Tekniko batek aztertuko ditu aurrenik, erakunde sari-babesleen adituekin eratutako Batzordea.

Ondoren, aurreneko aukeraketa horretatik aterako diren proiektuak, oinarrien 8. atalean aipaturiko epai-mahaiak baloratuko ditu.

Baloratzerakoan, ondoko alderdi hauek izango dira oso kontuan hartuko direnak:

- Ekintzaile/enpresa ekintzailearen profilaren eta enpresa-proiektuaren arteko koherentzia.
- Produktu/zerbitzuaren berrikuntza-maila eta bere bideragarritasuna merkatuan.
- Epe ertainean hazteko, aberastasuna eta lanpostu gaituak sortzeko aukerak.

6.- AGIRIAK ETA BESTELAKOAK

1. "Izen-emate orria"rekin batera, hauxe entregatu behar da:

"Enpresa Asmoak" kategoria

Enpresa-plana. Antolakuntzak emandako Enpresa-Plan Eredua erabil daiteke nahi izanez gero. Edozein modutan ere aurkeztuko den dokumentazioak ezingo du izan 40 orrialdetik gora.

Proiektuaren ontze-mailak Enpresa-plana aurkezteko aukerarik ematen ez badu, sariaren antolakuntzak ematen duen "Enpresa Asmoen Galdetegia" bete beharko da.

Laburpen exekutiboa, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena.

"Enpresa " kategoria

Enpresa-plana. Antolakuntzak emandako Enpresa-Plan Eredua erabil daiteke nahi izanez gero. 40 orrialdekoa izango da, gehienez.

Enpresaren eta talde ekintzailearen laburpen historiko laburra aurkeztuko da ere.

Laburpen exekutiboa, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena

"Nazioartekotzeari Babesa" Sarria:

Sariaren kategoria honetan parte hartu nahi duten hautagaitzek, erakundeak emandako galdetegia beteta aurkeztu beharko dute.

"Teknologia" Sarria:

Sariaren kategoria horretan parte hartu nahi duten hautagaiek ikerketarako eta garapenerako proiektua aurkeztu behar dute; gehienez ere 10 orrikoa. Agiri edo dokumentazio hori aurkeztu ezean, eskaera egiten dutenek Sari honetan ez direla aurkezten ulertuko da.

2. Hauteslea enpresa bada aipatu Enpresak saridunen hautatze-prozesu guztien ondorio izan daitezkeen efektu guztietan bere ordezkari izango den pertsona fisikoa izendatuko du.

"Enpresa Asmoak" kategorian, sustatzaile-talde batek jasoko balu sari hori, talde horrek pertsonaren bat izendatu behar du taldearen izenean aritzeko.

3. Bi Sarietako edozeinetan hautesle izateko, aurreko dokumentuetaz gain, Errolda-Ziurtagiria ("Enpresa Asmoak", banako edo taldeak), EJZren alta eta Ogasuneko eta GSko

(enpresen kasuan) ordainketen kasuan legeak dioena betetzen dela aitortzen duen ziurtagiria

4. Bosgarren atal honetako lehen paragrafoan aipaturiko Galdetegiaz gain, esan Epaimahaikideek egokitzat jotzen dituzten elkarrizketa pertsonal guztiak egin ditzaketela.

Enpresa edo lantegiei dagokienez, sarian parte hartzeko izena ematerakoan enpresaren ordezkari legez azaldu denari egingo zaio elkarrizketa.

5. Sariaren zenbatekoa jasotzeko, Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean daudela egiaztatu behar da.
6. Jasotako sariak, sari hau eta hurrengo edizioaren deialdia bitarteko epean gauzatu/bete behar dira
7. Aurkeztutako proiektuak edo asmoak Epaimahaikideek isiltasun osoan gordeko dituzte.
8. Hedabideei dagokienez, partehartzaileek hartzen duten konpromiso bakarra hauxe da: asmoaren edo proiektuaren izena eta proiektu edo asmo hori bultzatu duen enpresaren edo sustatzailearen izena ezagutzera ematea. Finalera iritsitako asmo edo proiektuen kasuan –hedabideen aldetik oihartzun handiagoa eskura dezaketena- bakoitzarekin egon eta erabakiko da goian esandako horretatik zer den jendearen aurrean zabaldu behar dena.
9. Parte hartzen duena bera da aurkeztutako agiri horietan esan duenaren egiazkotasunaren erantzule bakarra; Saria ematen duten erakundeak inondik inora ere ez daude derrigortuak hor esandakoak egi ala gezur diren aztertzeraz edo egiaztatzeraz, baina hala ere, hala egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat joko balute, aukera dute hori egiteko.
10. Saria ematen duten erakundeek ez lukete inongo erantzukizunik aurkeztutako asmoak –ustiatzeko proposatzen denak- edo parte hartzaileak aurkeztutako edozein agirik beste inoren eskubideak modu batean edo bestean urratuko balitu, hau da, jabego intelektualaren, industria-jabegoaren edo beste edozein motatako jabegoren eskubideak urratuz gero.”

7.- LANAK AURKEZTEKO EPEA

Epaimahaiak agiri guztiak aurkezteko finkatu duen epea hauxe da:
2009ko urtarrilaren 24a.

Sariari dagozkion agiriak ondoko leku hauetan aurkez daitezke:

BIC GIPUZKOA BERRILAN

Azitaingo Industrialdea, 3- 2. Eraikina; 2. solairua
20600 EIBAR (Gipuzkoa).
Tif.: 943.820.606

Miramoneko Parke Teknologikoa
Mikeletegi pasealekua, 56 - B8 eraikina. 1. Solairu
20009 DONOSTIA (Gipuzkoa).
Telefona: 943.000.999
e-maila: techevarria@bicberrilan.com

Dokumentazioa **CD-Romen** aurkeztuko da (pdf formatuan), eskatutako informazio guztia bilduz.

CD-Romaren hiru kopia gehituko dira ere.

Ez da bestelako euskarririk onartuko, ezta posta elektroniko bidalketarik ere.

Sariari buruzko agiri guztiak (Oinarriak, galdetegiak, izenak emateko orriak edo buletinak) www.bicberrilan.com webgunean bertan daude (Sariak atalean).

8.- EPAIMAHAIKIDEAK

- OHOREZKO EPAIMAHAIBURUA:

Patxi Lopéz jauna. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria.

- EPAIMAHAIBURUA:

Miguel de los Toyos. Eibarko Alkatea.

- BOKALAK:

EUSKO JAURLARITZAKO Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

SPRI

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako

Departamentua

Gipuzkoako INEMaren Zuzendari Nagusia.

DEBEGESA

BIC GIPUZKOA BERRILAN.

ADEGI.

A.P.D.

GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBERA

EIBARKO UDALEKO Ekonomia eta Industria Batzordea.

CONFESBAK Euskal Enpresarien Konfederakuntza.